

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko uztailak 12 · 1321 zenbakia

FUTBOLAREN BEGI ZORROTZAK

EUKi
ASEGURUAK



AUTO ASEGURUA

MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA,
KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA,
ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKAITZA**

Informazio gehiago: eukiseguros.com



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

Amaia Esnaola

ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 91- 3er. Eibar

943 20 72 17 | 600 43 29 08

amaia@amaiaodontologia.com

MIGUEL SEMINARIO

ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702898

arat.

**ZURE
IRRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 831
www.aratclinika.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez

Odontologiam Lizentziatua

943 20 72 17

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)

943 537 076 - 688 884 808

info@eibarclinicadental.com

www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea

Unzaga plaza 5. 4º I. Eibar

Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

943 20 72 17

- INDIATERAPIA
- KIDUEK LENTZAK
- Tuzkia eta TRIZENTE IA
- K. HERRIK + HERRIKORRIA

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20

Tel: 943 53 06 42

ane.mendia@formal.com

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PAOI
Ortodontzia / Implanteak / laser Teknologia



bista eder

clínica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistader.es



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Thoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D

dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com

www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Juan Palacios zinegile eibartarra Sakoneta inguruan ibili da azken asteotan pelikula berria grabatzen. Grabaketaren nondik norakoak kontatu dizkigu eta baita pelikularen xehetasun batzuk aurreratu ere.

etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Hortik esanak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Gaur eta hemen, gehienok ez gara arrazista, xenofobo edo aporofobo, berdinzaletasun unibertsal erabatekoan inor atzean utziko ez duen gizarte gutziz inklusibo baten aldekoak baizik. Politikoki zuzenak. Baina zer esaten -eta zer izaten- ari gara esaten dugunean immigrazioa onuragarria dela datozenek guk egin nahi ez ditugun lanak egiten dituztelako? Eta ez al dugu sarri samar esaten gure seme-alabentzat onena nahi dugula, benetan esan nahi dugunean pagatu behar dena pagatzeko prest gaudela immigranteen -edo, sinpleki, pobreen- seme-alabekin nahas ez daitezen? Gure seme-alabentzat onena nahi dugu, inor atzean utziko ez duen gizarte batean. Baina nola?

JUAN LUIS ZABALA, idazlea

Legorretako seme ospetsu batek Donostian egin dituen sexu abusuen berri Madriletik enteratu behar dugu? Ez dago euskal medioetan halako erreportajerik egiteko lekurik? Hemen izan den adina seminario, komentu, lekaime eta fraide ikastetxe, ez dago ezer ikertzeko? Marisol Zamorak dio ikastetxe hartan denek zekitelara zer egiten zuen, eta egunkariak berretsi dute La Sallekoek salaketa asko jaso zituztela. Non zeuden eta non daude orain arduradun horiek? Eta larriagoa dena: non daude gaurko arduradunak? Ziurra baita gaur ere abusuek jarraitzen dutela han edo hemen, ikastetxe erlijioso ugarietan, arduradunak bestaldera begiratzen ari diren bitartean. Eliza ez da inoiz garbituko.

PAKO ARISTI, idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PARABOLETAN IBILLI, JARDUN → Txutxu-mutxuka, eztabaidan, barriketan, ipuinetan jardun. "Hórrek bixok, paraboletan emoten dabe denboria".

1970

Amama
nagusienari
omenaldia

Amañako jaietan urtero omendu ohi dituzte auzoko aitzitxa eta amama zaharrenak, eta badirudi aspalditik dagoela horretarako ohitura. Ezkerretik hasita bigarrena ikusten den Amañako amama hori 109 urte zituela-eta omendu zuten 1970.

urtean
PLAZAOLA

Farmaziak

BARIKAKUA 12

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

ZAPATUA 13

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

DOMEKA 14

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 15

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

MARTITZENA 16

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

EGUAZTENA 17

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

EGUENA 18

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

BARIKAKUA 19

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Jose Luis Urzelai Zubiaurre. 95 urte. 2024-06-03.
- Carmen Mendiola Ansotegi. 89 urte. 2024-05-04.
- Excelsa Alvarez Cabezas. 90 urte. 2024-05-05.
- Elena Pascual Martinez. 87 urte. 2024-05-09.

Jaiotakoak

- Izei Fresno Panadero. 2024-06-28.
- Lina El Kanoni Bachiren. 2024-06-28.



Urriaren lehen Eibar izango den Euskadiko Adinekoen II. Topaketa aurkeztu dute

Urriaren lehen Eibar izango da *Euskadiko Adinekoen II. Topaketaren* egoitza. Iaz Durangon egindako lehen topaketaren arrakasta ikusita, esperientzia Eibarren errepikatzea erabaki du Euskadiko Adinekoen Federazioak (Euskofederpen). Ekimena Astelena frontoian egingo da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko adineko ehunka lagunek parte hartzea espero da, bai eta Eibarko Udaleko, hiru Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere. Aurreko astean aurkeztu zuten ekitaldia Jon Iraola alkateak, So-

nia Archeli Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, Maite Peña Zaintza eta Gizarte Politiketako diputatuak, Felix Elkoroiribe Euskofederpenen presidentek eta Ricardo Ibarra Euskofederpen Bizkaiaren ordezkariak. Aurreratu zuten, “instituzioen harreraren ondoren, elkarrekin hitza hartuko dute urriaren egingo den topaketan, elkartegintzaren boterea eta boluntarioratza sustatzeko beharra aldarrikatzeko. Ekitaldian, gainera, dantzak eta abesbatzen emanaldiak egingo dira. Amaieran, herri-bazkaria egingo da”.

Egun osorako egitarauarekin ospatuko dituzte “Ez Jaiak” Ipuruako Bolatokian

Ipuruako Bolatokiak “Ez Jaiak” ospatzeko egitaraua prestatu du biharko. Goizean, 10:00etatik 12:00etara haurrentako jokoak egingo dituzte. Ondoren, 13:00etik 14:00etara ardo-dastaketa egingo da, eta 15:00etan, berriz, herri-bazkaria hasiko da, bolatokian bertan. Arratsaldeko

17:00etatik aurrera tute eta igel-toka txapelketak jokatuko dituzte, eta horiek amaituta, 19:00etatik 20:30era piskolabisa egingo da gerturatzen diren guztientzat, doan. Egitaraua biribiltzeko, 20:30ean Eibarko aho-orkestraren emanaldia hasiko da, Miguel Angel Freyren eskutik.

Udaleko sailek eta Pegorak goizez egingo dute lan uztailan, abuztuaren eta irailean

Udal sailak goizez arituko dira lanean uztaila, abuztua eta irailean, astelehenetik barixakura, 08:30etik 13:30era. Itxita egongo dira uztailak 25ean eta 31n, eta abuztuaren 15ean eta 16an. Pegora Herriarren Zerbitzurako Bulegoak ere goizeko ordutegia izango du (08:30etik 13:30era) uztaila, abuztua eta irailean, astelehenetik barixakura. Telefono bidezko arreta: 08:00-14:00. Eta itxita egongo da uztailaren 25ean eta 31n eta abuztuaren 15ean eta 16an.



Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak

Lokal komertzial, industrial eta elkarrekin egotzetako errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntza eskaera egiteko epea zabaldu berri du Udalak. Dirulaguntzak herriko lokal komertzialetako, industrialetako edo elkarrekin egotzetako irudi korporatiboa osatzen duten errotulu, inskripzio eta elementuak euskaraz edo ele bietan (euskaraz-gaztelania) jartzeko izango dira, eta eskatzeko epea azaroaren 15ean amaituko da. Eskaerak www.eibar.eus webgunearen bitartez aurkeztu daitezke, eta bertan aurkituko duzue informazio gehiago ere.

Martitzenetik eguenera bitartean zabalduko dute Eibarko Udako Aukeren Azoka

Eibarko Udako Aukeren Azoka Toribio Etxebarria kalean egongo da aurten ere, Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) eta Eibarko Udalak elkarlanean antolatuta. Berrikuntza gisa, aurten egun bat aurretik, martitzenean hasi eta eguenean amaituko da.

Guztira 26 establezimenduk hartuko dute parte. Horietatik 19 Toribio Etxebarria kalean jarriko dituzten karpetan egongo dira, eta beste zazpik beraien dendetan egongo dituzte eskaintza bereziak. Azoka martitzenean inauguratuko da, 09:45ean, antolatzaileak, tokiko agintariak eta Eibarko merkataritzako ordezkariak bertan direla. Eguenera arte iraungo du, eta eguenero 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute.

Kalean postua ipinita parte hartuko duten establezimenduak honako hauek dira: Atelier11, Beittu, Bambi, Burbujas y Más, Designed by Nona, Eskulan, Gigil Design, Gratzina, Guby, Helmet House, Ikusi, Kofiña, Lulu, Moapics, No Comment, Otaola deskantsu denda, Pissa, Twins eta Txukuna. Eta dendatik bertatik arituko direnak, berriz, beste hauek: Askasibar, Cedry, El Vestidor, Farmalur, Federópticos Igmar, Oskarbi eta Vieco. Beti bezala, azokak hainbat merkataritza-sektoretako produktu-sorta zabala eskainiko du: ekipamendu pertsonala (arropa, oinetakoak eta osagarriak), etxeko produktuak, kirola, dekorazioa, optika, jostailu-denda, paper-denda, opariak edo parafarmazia.

Euskaraz Primeran kanpainarekin hartuko du parte ...eta kitto! Euskara Elkarteak

Beste batzuetan bezala, ...eta kitto! Euskara Elkarteak azokan egongo da, Euskaraz Primeran egitasmoarekin. Beste batzuetan bezala, erosketak egiterakoan herritarren artean euskara sustatzeko jarduera prestatu du: oraingo honetan, ... eta kitto! Euskara Elkartearen



Euskararekiko konpromiso maila kolore ezberdinekin irudikatzen joateko joko modukoa prestatu du ...eta kitto!-k.

standera hurbiltzen direnek kristalezko ontzi batzuk koloretako harriekin bete beharko dituzte, parte hartzaileek euskararekiko hartzen duten konpromisoaren arabera: urdina saltoki edo ostalaritza establezimendu batera joatean “lehen hitza euskaraz” bada; laranja, “elkarriketa euskaraz hastea” bada; eta arrosa “elkarriketa euskaraz mantentzea” bada.

Parte-hartzaileek kanpainako poltsa jasoko dute opari gisa, eta EMGIk emandako 100 euroko erosketabonuaren zozketan sartuko dira, azokako postuetan bertan erosketak egiteko. ...eta kitto!-ren mahaia Toribio Etxebarrian egongo da hiru egunetan, Birjiñape zeharbidearen ondoan, goizeko 10:30etik 12:30era. Zozketa azken egunean, eguenean egingo da, 12:30ean, standean bertan.



Txonta birgaitzeko proiektua bertatik bertara ezagutzen

Txonta auzoaren hiri-berroneratze integralerako proiektua bertatik bertara ikusteko bisita egin zuen aurreko astean Isabel Rodriguez Etxebizitza eta Hiri Agendako ministroak, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburu Denis Itxasorekin batera. Azaldu zuten, “birsorkuntza, etxebizitza babestuen sustapena eta birgaitzea uztartzen ditu” proiektuak. Sailburu kargua hartu ondorengo lehen ekitaldi instituzionala izan zen Itxasorentzat, eta berarekin batera Jon Iraola Eibarko alkatea, Miguel de los Toyos sailburuordea, eta Marisol Garmendia Espainiako Gobernuak Euskadin duen ordezkaria egon ziren, besteak beste. Espainiako ministroari “hiri-berroneratzearen arloan, alokairuko etxe babestu berrien eraikuntzan, eta erabiltzen ez diren eraikinen birgaitzean gazteentzako apartamentuak eraikitzeko Eusko Jaurlaritzak Txontan egiten ari den jarduketak”

erakusteko bisita izan zen. Amaieran adierazi zuten, Denis Itxasok Txontaren proiektua erakutsi nahi izan dio ministroari, Eibarko Udalarekin eta Gobernu zentralarekin egindako “lankidetzaren baten emaitzen erakusgarri bikaina delako”. Izan ere, Gobernu zentralak Txontaren hiri-berroneratze integrala babestu du, Next Generation EU funtsetatik jasotako 1,7 milioi euroekin, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientziako mekanismoaren bidez. Kopuru hori Eusko Jaurlaritzak jarritako 2,3 milioi euroei gehitu zaie. Horren emaitza izan da 17 eraikinetan banatutako 220 etxebizitza birgaitzea, energia-eraginkortasunaren, irisgarritasunaren eta bizigarritasunaren aldetik. Esku-hartze hori auzoan dagoen bulego batetik bideratu da. Eredu berritzaile horren proiektu pilotua Txonta auzokoa izan zen, Bilboko Otxarkoagakoarekin batera.



Aibe lantegi zaharra birmoldatzeko proiektu irabazlearen bideoa

Aurreko asteko eguenean egindako bisitan ministroak eta sailburuak Txonta hegoaldeko eremurako aurreikusitako proiektuaren berri jaso zuten. Azaldu zuten, bertan, alokatzeko babes ofizialeko 200 etxebizitza berri baino gehiago eraikiko dira, eta Eusko Jaurlaritzak 30 milioi euro inguruko inbertsioa egingo du. Hirigintza-plangintzaren alorrean onartze dagoenez, gerora, promozio berriak eraikitze lanetan aurrera egin ahal izango da.

Horrez gain, auzoaren sarrean zegoen Aibe fabrikako eraikin zaharra gazteentzako alokairuko zuzkidura-bizitoki bihurtuko dela adierazi zuten: “Apartamentuak txandakakoak izango dira. Izan ere, horietan gehienez bost urtez bizi ahal izango da, hileko diru-sarreraren %30 gaintzen ez duen hileko kanon baten truke. Bereziki egokiak dira emantzipazio-prozesuak bultzatzeko”. Aibekoa duela gutxi Eusko Jaurlaritzaren eta Eibarko Udalaren artean Txonta Hegoaldeko eremuan eraikitze indarrean dagoen hitzarmenari gehitzen zaion proiektua da.

Hain zuzen ere, Txontako Aibe tailerraren birmoldaketarako proiektu irabazlea ezagutzera emateko bideoa egin du Udalak, eta aste honetan ipini du ikusgai bere webgunean.



Global Training beketarako izen-ematea uztailaren 19an amaituko da

Dagoeneko zabalik dago Global Training 2024 bekak eskatzeko epea. Beste urte batez, Basque Trade & Investment-ek (Euskal Nazioartekotze Agentzia), ASPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimena abian da atzerrian lan-erperientzia bizi nahi duten gazte guztientzat. Bekak aukera ematen du praktika profesionalak atzerriko enpresa edo erakunde batean egiteko, hilean 1.635 euroren truke. Izena emateko baldintza hauek bete behar dira: 30 urte baino gutxiago izatea eta unibertsitateko titulua eta ingeleseko B2 maila izatea.

Asko dira lanaldia gauzatzeko helmuga-herrialdeak, hala nola, Costa Rica, Belgika, Portugal, Mexiko, Argentina, Suitza, Guatemala, India, Frantzia, Txile, Italia, Arabiar Emirerriak, eta abar. Profil akademikoei dagokienez, eskaintzak adar guztietarako daude: komunikazioa, zientzia politikoak, DEA, psikologia, gizarte-zientziak, nazioarteko harremanak, arkitektura, ingeniari-ritzak, irakasletza, zuzenbidea eta biologia dira adibide batzuk. Izena emateko epea uztailaren 19an amaituko da. Izena emateko zein informazio gehiago eskuratzeko Interneten begiratu (garapen.net).

Udako ordutegia Udal Liburutegian

Udaleko beste zerbitzu eta sailetan bezala, liburutegian ere ordutegi berezia sartu da indarrean. Horrela, uztailaren 31ra arte, astegunetan 09:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:30era zabalduko dute (uztailaren 25ean eta 31n itxita egongo da). Abuztuaren 1etik 2ra eta 19tik 31ra, berriz, bakarrik goizez zabalduko dute, 09:00etatik 13:30era (astelehenerik barixakura); abuztuaren 5etik 14ra, bakarrik ikasgela zabalduko dute 09:00etatik 13:30era (astelehenerik barixakura). Eta abuztuaren 15ean eta 16an itxita egongo da. Iraileko ordutegia ere berezia izango da.

Euskotrenek Debarekiko loturak indartu ditu udarako

Uztailan sartzearekin bat, Euskotrenek udarako ordutegi berriak jarri ditu indarrean, kasu askotan hondartzak erreferentzia puntutzat hartuz. Hori dela-eta, Bilbo eta Donostia lotzen dituen ohiko lineatik aparte, Ermua eta Debaren arteko lotura areagotu egingo da hilabete hauetan, konexioak handiagotuz: gure herritik orduro pasatzen diren tren horietatik aparte, astegunetan goizeko 11:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte, beste tren batzuk izango dituzte 41 eta 19 minutuko tartetan (alternatiboki). Zapatu, domeka eta jaiegunetan frekuentzia berberari jarraituko diote arratsaldeko 20:00ak arte.



Palestinan gertatzen ari den sarraskiaren kontrako kontzentrazioa hilak 19an

Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek deituta, Palestinaren kontrako genozidioa geratu dezatela eskatzeko elkarretaratzea egingo da datorren asteko barixakuan, uztailaren 19an, 19:30ean Untzaga plazan. Herritar guztiak daude deituta bertan parte hartzera.



Mimo handiarekin zaindu eta zaharberritu dituzten Lambretta motorrak goizez eta arratsaldez erakutsiko dituzte bihar Untzagan. EIBARKO LAMBRETTA KLUBA

Eibarren egindako motozikletek hartuko dituzte kaleak asteburuan

Eibarko Lambretta Klubaren eskutik, Lambretta Eibar XIX. Topaketa egingo da bihar eta etzi gure herrian. Azken urteotako martxan, aurten ere bi egunerako plana prestatu dute.

Goizean goizetik ekingo diote biharko programari: 10:00etatik 12:00etara Untzagan elkar-tzen joango dira motorzaleak, beste herri batzuetatik etorritako parte-hartzaileei harrera egin eta akreditazioak banatzeko. Jarraian, bertatik irtengo dira topaketako parte-hartzaile guztiak, 12:00etan, Lambretta gainean herriko kaleak zeharkatzeko. Eta, kalejiran era guztietako mode-loak herrian erakutsi ondoren, kostalderako bidea hartuko dute. Aurten Getariara joango dira motorzaleak, eta bidean atsedaldia



egingo dute, hamarretakoa jateko. Ondoren, 13:30ak aldera Soralu-zerako bidea hartuko dute, han-go Txurruka jatetxean elkarrekin bazkaltzeko. Ohikoa den bezala, bazkalostean banatuko dituzte sari eta oroigarriak. Eibarrera buelta 18:30ak aldera egingo dute, eta 20:00etarako motor guztiak Untzagan aparkatu eta erakutsiko dituzte, afari-merienda egiten duten bitartean jendeak ikusi ditzan.

Domekarako plana apur bat lasaiagoa izango da: goizeko 10:00etan elkartu eta eskualdean zehar ibiliko dira motorzaleak, hamarretakoa egin eta gero, bazkaltzeko ordurako datorren urtera arte agur esango dute.

Modernotasunaren sinonimo zi- ren milaka Lambretta egin ziren Eibarren

Asteburu honetan makina bat Lambretta errepidean ikusi-ko baditugu ere, gaur egun ia-ia museoetan baino ez dira ikusten horrelako motorrak. Ironikoa ere bada, XX. mendearen erdialdean, 60ko hamarkadan, Lambretta motozikletak Europako errepide guztietan ibiltzen baitziren, modernotasunaren ikur gisa. Otaola hiribidean zegoen Eibarko Lambretta fabrikaren instalazioetan milaka eta milaka motor egin zituzten, eta hiru milioigarrena 1963. urteko martxoan irten zen bertatik.

Urteroko topaketa antolatzen duen Eibarko Lambretta Kluba, Eibarren egiten ziren motor horiekin gozatzeko eta, batez ere, zaletasun horren bitartez Eibarko ondare industrial berreskuratze-ko asmoz sortu zuten, 2003an. Harrezkero Eibarko zein kanpoko errepideetan martxan dabiltzan hamarnaka Lambretta berresku-ratu eta zaharberritu dituzte.



ESPAZIO GEHIAGO MEREZI DUZULAKO

ARRATE HOMES • EIBAR

Errebal plaza ondoko
eraikuntza berriko etxebizitzak.

Garajea • Gimnasioa
Gourmet aretoa • Trastelekua

Zatuz Neinor Store-ra
Bidebarrieta Kalea 6, Eibar

ETA EZAGUTU GURE PROMOZIO BERRIAK

* Kontsumatzaile lege-arloan

 **Neinor** HOMES

900 11 00 22 • neinorhomes.com



Maialen Lujanbio

ARRATEKO BERTSO AFARIA



Iker Zubeldia



Andoni Egaña

IRAILAK 7 ZAPATUA

TIRO PITXON
JATETXEAN
21:00etan



Nerea Ibarzabal

Sarrerak salgai BAZKIDEENTZAT uztailaren 12tik 22ra ...eta kittedi-n (38€)

Uztailaren 24tik aurrera Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonon (40€)

“Flyscha estratuetan banatuta dagoen bezala, pelikula estratu filmikoetan banatzen saiatu naiz”

JUAN PALACIOS • Zinegilea



Gipuzkoako kostaldea, Sakoneta eta Mendata inguruan, zinema-plato bihurtu da azken asteotan. Izan ere, bertan izan da Juan Palacios pelikula berria grabatzen. ‘Pedaló’ eta ‘Meseta’ lanekin gertatu bezala, zinemagile eibartarra bere erroetara itzuli da esperimentaziotik asko duen proiektu berria gauzatzeko.

Eguraldiaren eta mareen menpe ibili dira Juan Palacios eta bere taldea Sakoneta eta Mendata inguruan bere pelikula berriaren grabazio batzuk egiteko. Flyscha osatzen duten harri-xaflek bezala, zinemagile eibartarraren pelikulak hainbat geruza izango ditu, harriaren bitartez denboraren eta gure izatearen inguruko gogoeta eginez. Azken orduko aldaketarik ez badago, ‘Trauteaz’ izango da pelikularen izenburua.

Zer moduz joan da aste hauetako grabaketa?

Bi-hiru aste egon gara Sakoneta eta Mendata inguruan grabatzen, flyschean, baita Zumaia aldetik eta Lemoizko zentral nuklearrean ere (hor gertatu zena pelikularen parte da). Hau izan da nire lehen aldia aktoreekin grabatzen (Jordi Vilches eta Joseba Apaolaza), benetako fikzioa egiten, lan-talde handiarekin (orain arte egin dudanarekin alderatuz) eta, maila logistikoari begira, toki horretan grabatzea, arroka artean, nahiko zaila eta gogorra da. Bakarrik materiala haraino eramatea zaila da eta, horrez gain, mareak kontuan izan behar dituzu. Egunean sei orduko epea zabaltzen zaizu bertan grabatu ahal izateko, eta, ez bazara erne ibiltzen, mareak harrapatuko zaitu. Grabaketa egiteko nolabaiteko presa zegoela iruditzen zait. Aldi berean,

paisaiaren elementuak (sentsorialak, naturalak...) pelikulan sartzea gustatzen zait. Hau da, mareak, haizeak eta horrelakoek pelikularen forman eragina edukitzea. Mareen kontu horrek aktoreengan eragina du. Urduritasun eta premia bat sortzen zuelako, eta hori ere pelikularen istorio bat da, momentu batean aktoreak mareaz ihesi dabiltzalako.

Aire zabalean grabatzeko orduan eguraldia ere kontuan hartu behar da. Grabaketa baldintzatzen du?

Bai, pila bat. Ekoizleetako bat kataluniarra da, eta ez zituen gauza batzuk ulertzen. Batetik, mareen kontua dago. Grabatzen genuen tokia urez betetzen zela ikusi zuenean flipatu egin zuen. Eta, bestetik, eguraldiaren kontua. Orain dela urtebete inguru hasi ginen filmazioa prestatzen eta esan nion Euskal Herrian ia ezinezkoa zela euririk gabeko bi aste edukitzea, eta hor kanpoan euriarekin ezin da grabatu. Zorionez, lan-talde malgua eta ulerkorra eduki dugu, eta hiru aste hauetan atsedean egunak eduki behar genituen, atsedean egunak eguraldi txarra egiten zuenean jartzten saiatu gara.

Beraz, egunaren arabera moldatu behar izan zarete.

Gauza asko hartu behar dira kontuan, eta eguraldiaren, mareen eta argiaren arabera, plano bat edo beste grabatzea erabakitzen joan gara.



Azken asteotan Juan Palacios pelikula berria ibili da grabatzen Sakoneta inguruan.

Hori guztia pelikularen filmaketaren zati bat besterik ez da izan. Nola grabatzen da pelikula bat?

Uste dut zinemagile eta ekoizle bakoitzak bere modura egiten duela. Nire pelikuletan idazketa prozesua, muntaia eta grabaketa batera joan daitezten saiatzen naiz. Hori jada ezinezkoa da, ez doaz batera, baina nolabaiteko aldiberekotasuna edukitzen saiatzen naiz. Orokorrean, nire pelikulen abiapuntua toki bat izaten da, espazio bat. Toki batera joan aurretik gauza bat idatzi dezakezu; baina, bertara joan eta grabatzen hasten zarenean, aurretik pentsatu duzun errealtate hori ezberdina dela konturatzen zara. Beraz, berridazketa prozesu bat egon behar dela uste dut. Orduan, grabatzera noa, pixka bat muntatzen dut, nolako materiala dudan ikusi eta pelikula berridazten dut. Malgutasun hori edukitzen saiatzen naiz. Kontua da pelikula honetan lan-taldea 15 lagunek osatu dugula eta, 15 lagun izanda, aipatu dudan prozesua edukitzea zaila dela. Izan ere, gauzak oso ondo zehaztuta egon behar izan dira, baliabide asko direlako eta ondo erabili nahi izan ditudalako.

“Filmaketetan gauza asko hartu behar dira kontuan eta eguraldiaren, mareen eta argiaren arabera, plano bat edo beste grabatzea erabakitzen joan gara”

Nolako pelikula izango da?

Pelikula harriari buruzkoa da, flyschari buruzkoa, paisaia horren ingurukoa. Edo, agian, gizakiaren edo gure zibilizazioaren denbora hau harrien denbora-eskalaren bitartez ikustea da asmoa. Hau da, harrien ikuspuntutik gu begiratzea. Agian pelikula horri buruz doa gehiago. Dena dela, paisaia horri buruzko ikerketa da. Flyscha estratu ezberdinetan banatuta dago, milaka estratu daude, eta pelikula estratu filmikoetan banatzen saiatu naiz. Nire ideia da pelikulak, formalki, paisaia hori islatzea. Hau da, pelikulak paisaiaren

Elkarrizketaren
BIDEOA

forma hartzea. Estratu filmiko bakoitzak denbora bat islatzen du pelikularen istorioan eta estratu bakoitza formatu ezberdin batean dago grabatuta. Adibidez, dagerrotipoekin hasten gara, antzina argazkiak egiten ziren formatuan; gero, 35 mm-ko zuri-beltzeko emulsiio zahar batera pasatzen gara; beste zati bat Super 8-an grabatuta dago; beste bat VHS-n... Oraindik ez dakit nola irtengo den, esperimentu bat da. Bestalde, pelikulak trama bat ere badu.

Teknikaren aldetik, nolako erronka izan da formatu horietan grabatzea?

Dagerrotipoen kontua ez dugu oraindik egin. Aita argazkiak egiten ibiltzen da, eta dagerrotipoak egiten dakienez azpeitiar bat ezagutzen du. Pelikula ia muntatuta dagoenean landuko dugu hori seguruenik.

Aita (Juan Antonio Palacios) eta harria aipatu dituzu, eta, hain zuzen ere, berak 'Harria' izeneko argazki-liburua egin zuen. Pelikularako inspirazio izan da?

Izan daiteke! Niretzat kasualitatea da, baina nork daki zure inguruan gertatzen diren gauzek zuzen nolako eragina duten. Seguruenik nolabaiteko eragina izan du.

Zergatik aukeratu duzu flyschean grabatzea?

Gurasoak beti zebiltzan jendez beteriko hondartzetatik ihesi eta txikitatik Sakonetako kala batera joan izan naiz. Ondo ezagutzen dudana eta asko gustatzen zaidana tokia da. Gero, Ingurugiro Zientziak ikasi nituen eta geologia landu genuenean flyscharen inguruko gauzak ikusi genituen. Lurraren historia hori erregistratuta dago, planetan gertatu diren gertakizunak, eta hori berez interesgarria iruditzen zait. Bestalde, Artistic Research in and through Cinema (Ikerketa Artistikoa Zinemari Buruz eta Zinemaren bitartez) izeneko masterra egin nuen Amsterdamen. Hau da, zinema erabiltzea ikerketak egiteko. Orduan, gizakiak ez diren entitateen ('non human' esaten zaie ingelesez eta gizakiak ez diren beste bizidunak izan daitezke edo, arrokak bezala, bizitarik ez duten entitateak) ikuspuntuari buruz ikertzen hasi nintzen, munduari euren ikuspuntutik begiratzean. Zinemak espazioa eta denbora iraultzeko gaitasuna du (adibidez, pelikulak



irauten duen ordu eta erdian pertsona baten bizitza gutzia kontatu daiteke), eta arte edo bitarteko egokia da aipatutakoa ikertzeko.

Danimarkan bizi izan zara, orain Amsterdamen, eta hango zinea ezagutzeaz gain, Euskal Herriko errealtatea ere ezagutzen duzu. Bata eta bestearen artean aldeak ikusten dituzu? Nolako aukerak daude batean eta bestean zinea egiteko?

Laguntzei dagokionez, Danimarkan eta Herbehereetan diru-laguntza gehiago dago zinea egiteko. Aukera gehiago dago eta horrek lasaitasuna ematen dit. Han bizitzen jarraitzeko arrazoi bat izan daiteke, baina ez dakit zenbat denbora, hemen egiten den zinema gehiago interesatzen zaidalako. Gertukoagoa sentitzen dut. Bitxia da, baina orokorrean, Europa hegoaldean egiten diren pelikulak iparraldean ez dira asko ikusten, ezta alderantziz ere. Adibidez, 'Meseta' pelikularen ondoren, 'As the Tide Comes In' izeneko pelikula egin dut Danimarkan eta toki askotan jarri dute, mundu guztian zehar, baina Frantziatik behera ez. Ez dakit zergatik den horrela. Agian urrutiegikoa dela sentitzen da edo hango errealtateak, hain urrunekoa izanda, ez du interesik sortzen hemen. Azken finean, urtero pelikula asko egiten dira eta denak jaialdi guztietan egotea zaila da.



BAZKIDE zertarako?

Euskal Herrian horren tradizio handia duen bertsolaritzaren bueltan hainbat ekitaldi antolatzeko:



Arrateko Bertso Afaria: Arrate bezperan egiten da, puntako lau bertsolarirekin.

San Andres Bertso Paper lehiaketa: San Andres jaien inguruko lehiaketa, gazte eta helduentzat, Eibar zein Euskal Herri mailan.

San Andres Bertso Jaialdia: Coliseo antzokian egiten den jaialdia, lehen mailako sei bertsolarirekin. Jaialdia hasi aurretik banatzen dira bertso-paper lehiaketako sariak.

zarelako **g**ara

Egin zaitez bazkide!

Euskarabentura espedizioaz gozatzen

Uztailaren 1ean, Euskarabentura espedizioaren zazpigarren edizioa jarri zen martxan 127 gazterekin. 400 km zituzten aurretik, Euskal Herria alderik alde zeharkatzeko asmoz. Euskal Herri osotik eta diasporatik etorritako gazteek osatzen dute espedizioa eta euren gidari dira lan-taldea osatzen duten 30 lagun. Ordezkarri eibartarrak ere baditugu: Elga Ariznabarreta eta Fikri el Ghabali.

Euskarabenturaren bederatzigarren etapa egiten ziharduten bitartean harrapatu ditugu Elga eta Fikri telefonoaren beste aldean. Iruñea eta Gesaltza-Añana lotzen zituen etapa horrek eta, aurreko egunetako ibilaldiek eta bezperan Iruñeko sanferminetan erromerian dantza egiten pilatutako nekearen eragina nabari zuen bikoteak. “Autobusean lo harrapatu gaituzu”, aitortzen digute barrez. Eurek, ostera, laster ematen diote buelta nekeari, gogotsu baitaude aurretik dituzten kilometro eta ekintzak gauzatzeko.

Elgak kamiseta laranja darabil soinean, jzioquitarra baita bera. Izen hori hartzen dute Euskarabenturako parte-hartzaileek, ‘jzioqui dugu’ baita Euskarabenturaren leloa. Idatziz agertu ziren lehen euskal hitzetatik hartu dute bera hori eta, hitz horien esanahi zehatza zein den ez badakigu ere, hainbat hizkuntzalarik uste dute piztu dugu esan nahi duela.

Euskal Herria zeharkatzen dihardute 127 lagunek eta lan- taldeko 30 kideek

Jzioquitarrek 15-17 urte bitarteko gazteak dira eta hautaketa prozesua gainditu behar izan dute parte hartu ahal izateko. Elgaren kasuan, zera kontatu digu: “Parte-hartzeko lan bat egin behar da, eta hiru gairen artean aukeratu behar genuen aurten: ‘Emakumeak eta kirola’, ‘Euskara batua eta euskalkiak’ eta ‘Utopia’. Gaiak lantzeko formatu ezberdinak erabili ditzakezu (poesia, bertsoa, bideoa...) eta, nire kasuan, Gabonetan ukelelea jotzen hasi nintzenez, euskara batuaren eta euskalkien inguruko abestia egin nuen”. Eta ondo egin ere, Euskarabenturan parte-hartzeko aukeratu baitzuten.

Jzioquitarrek ez dute ezagutzen zein izango den aurtengo Euskarabenturak izango duen ibilbidea, baina badakite egunero hainbat kilometro oinez egin beharko dituztela. Horretarako moduren batean presatu ote den galdetuta, Elgak dio ez duela prestakuntza fisiko berezirik egin. “Ez da beharrezkoa oso kirolaria izatea, egingarria da”, diosku. Ostera, mentalki bai prestatu zen. “Pausu handia da hainbeste jendeke parte hartzen duen ekimen batera bakarrik etortzea”, aitortzen digu. “Hasieran, Donostira autobusean heldu nintzenean jendea taldetan ikusten nuen eta ‘ai ama, nora etorri naiz’ pentsatu nuen, nahiz eta aurretik jakin hasieran agian zaila izango zela. Handik Atharratzera autobusean joan ginen, bikoteka jarri eta 15 minututik behin tokiz aldatzen joan ginen elkar ezagutzeko. Orduan ikusi nuen denok antzeko egoeran etorri ginela eta zabaltzera behartuta geundela. Horrek gauzak asko erraztu zituen. Atharratzera heldu ginenerako oso lagunarte-



Goian, Fikri el Ghabali 'urdina' eta Elga Ariznabarreta jzioquitarra. Behean, jzioquitarrak Sanferminetako erromeriaz gozaten. EUSKARABENTURA

ko giroa genuen. Gainera, inork ez zaituen ezagutzen, harremana zerotik hasia bezala da. Orain, gure artean askotan komentatzen dugu zein harrigarria den ezagutu eta bederatzi egunetara betiko lagunak garelako ematen duela”.

Sherpa urdinak

Euskarabenturako begiraleei 'sherpa' esaten diete eta eurekin ere harreman estua dutela dio Elgak. “Nire taldeko sherpa Ainhoa da eta edozer gauzatarako alboan dugu. Euretako askok horrelako ekimenetan esperientzia dute eta badakite egoera bakoitzean nola ekin”, diosku jzioquitarrak. “Zorionez, niri orain arte ez zait ezer gertatu, baina parte-hartzaileen artean egon da lesioen bat. Dena dela, erizainak baditugu eta baita furgoneta ere egun jakin batean etapa oinez egin ezin dutenentzat”.

Fikri dugu 'sherpa' edo 'urdin' artean ordezkaritza eibartarra. ‘Urdinak’ esaten diete, kamiseta urdina janzten dutelako. Elgak esan bezala,

Uztailaren 1ean Atharratzen eman zioten hasiera Euskarabenturaren zazpigarren edizioari



Fikrik badu horrelako ekimenetan esperientzia. “Eibarko udalekutan ibili izan naiz eta, bestalde, igerilekuko monitoreak ere izan naiz, sorroslea, eta abar”, diosku.

Fikrik horrela definitzen du bere lana: “Edozein udalekutan egiten den lanaren bezalakoa da, baina askoz ere jende gehiagorekin eta denbora luzeagoan. Batetik, taldea dinamizatzea da gure zeregina (otorduetan, jolasteko orduetan...). Bestalde, oinez goazenean, etapak zabaltzeak eta denak elkarrekin joateak arduratzen gara”.

Elgak dioen haritik, Fikrik dio “nahiko harreman pertsonala” dutela parte-hartzaileekin. Gainera, “oso oso ondo” portatzen direla esan digu. “Askoz ere zailagoa izango zela uste nuen. Lehenengo egunetan hitzaldi batzuk izan zituzten eta pentsatu nuen agian eurentzat ez zirela interesgarriak izango, baina oso ondo hartu zituzten. Azkenean, hainbeste lagun egonda, beti dago norbait lantzen diren edukien inguruan interesa duena”, diosku.



Nekeari irribarre batez egiten diote aurre Euskarabenturako parte-hartzaileek. EUSKARABENTURA

Ibiltzeaz gain, bestelako dinamikak eta ekintzak egiten dituzte

Ibilaldiak eta bestelako ekintzak

Egunero 20-30 kilometro egiten dituzte, etaparen arabera. “07:00etan esnatzen gara, eguzkiaren okerrera ekiditeko”, azaldu digute antolakuntzatik. Motxilak prestatu, furgonetan sartu, gosaldu eta taldeka banatzen dira ibiltzen hasteko, erritmoaren arabera. “Lehenak abiatzen ‘trikuak’ izaten dira, 08:00etan. Haien atzetik ‘katagorriak’ doaz, 08:15ean; eta gero, 08:30ean, ‘erbiak”.

Eguerdirako, gutxi gorabehera, helmugara iristen dira, eta luzaketak egin, motxilak deskargatu eta bazkaldu ondoren, dinamikak egiten dituzte. “Batzuetan urdinok dinamizatuta, beste batzuetan jzioquitarrekin prestatuta eta noizean behin kanpoko gonbidatuekin”.

Iluntzean, dutxa, afaria eta gaubela egiten dute. “Eta gaueko ekintzaren ondoren, lotara goaz”, gehitzen dute. Elgak azaldu digunez, orain arte taldeka egin dute lo, baina azken etapetan guztiok batera ari dira elkartzten, “frontoietan eta”, lo zakuarekin lurrean lo seko geratuz.

Aipatu bezala, ibilaldiaz gain dinamika eta ekintza kulturalak egiten dituzte. “Helburua proiektu, espazio eta erreferente ezberdinak ezagutzeko da”, antolakuntzatik diotenez. Horrela ezagutu dituzte, besteak beste, Altxa Lili, Predosta eta Gartzok ekimenak. Eta horrez gain, toki bereziak ezagutzeko aukera dute. Adibidez, Elga eta Fikriren berba egin genuen egunean Irulegin izan ziren eta Irulegiko Eskuaren inguruko azalpenak jaso zituzten. “Interesgarria izan da”, Elgaren ustez.





Arrateko afizionatuentzako
III. Igoera. EGOIBARRA
BATZORDEA

1943 inguruan Klub Deportiboa Calbeton kalean zegoen. Txirrindularitza sailerako norbait behar zutela esan zioten, eta bertan hasi zen. Arrateko Igoeraren hastapenak azaltzen ditu: bidea oraindik harrizkoa zen; sariak zenbatekoak ziren, etab.

Eibarko Klub Deportiboa eta Arrateko Igoera

Juan Guisasola Ariznabarreta Txoko
(1917 – 2002)



Juanito Guisasola Txoko CDE-ko (Eibarko Klub Deportiboa) kide zen. Arrateko Igoeraren antolatzailea; Frantziako Tour-aren antolaketa 9 urtez parte hartutakoa; eta abar. Kirol munduan lan asko egindakoa. 2002ko ekainean zendu zen.

Juan Guisasolari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Nola hasten zara, Juanito, pixkanaka-pixkanaka bizikleta munduan eta karrera munduan sartzen?] Orduan denporan ni anaian tabernan nenguan. Eta zan *el año...* 4:3 edo hortxe zan -1943-44, hortxe-. Eta etorri jatazen Klub Deportibo... Orduan Klub Deportiboa eguan *calle Calbeton*. Eta zan ezer be ez. Soziedadiak eukiko zittuan 50 metro kuadrua, altuena. Ez zekan gehixago. Eta handik diar egin esten esateko, ba, komis... ziklismuan gizon bat falta jakuela eta lehen egon zanak alde egin dabela eta ia ni hasiko nintzan. Bueno, zelan nik beti euki doten barruan, bihotzian, zeozer egitteko gogua, geldirik egon ezin, umetatik be ez, ba bueno, baietz. Hasi nintzan eta holaxen: *Subida a Arrate* hartu nebanian, ikusi neban eta etorri ziran, ba, orduan nik orduan ezagutzen nittuan korredoriak: Mancisidor, Langarika, Langara, Trueba eta hórrek. Eta egin zeben subidia. Eta gainera subida, karretera, kamiñua, Arratera harrixa zan (...).

Futbol jokoaren zaindariak

BIDEOA



Gaizka Altuna, Jorge Rubio eta Markel Gutierrez 3. RFEF mailan aritu dira arbitro bezala azken denboraldian. Gure herriarentzat historikoa izan da, inoiz ez baita hainbeste epaile izan maila horretan. Ba, hori gutxi balitz, lehenengo biek egindako lan onarengatik mailaz igotzea lortu dute, eta 2. RFEF-en egongo dira datorren denboraldian. Futboleko izarrak ezezik, jokozain bikainak ditugu herrian.

Ume askoren ametsa izan ohi da futboleko izarra izatea. Goleatzaile handiak, erdilari trebeak edo atezain biziak, baina ez da oso ohikoa izaten arbitro izateko nahia edukitzea. Gaizkak, Jorgek eta Markelek, ostera, futbola ikuspuntu horretatik bizitzeko hautua egin dute eta nola gainera, euren gaztetasunean maila bikaina erakusten ari baitira.

Hirurek dute futbola oso gustoko eta kirol horretan jarraitzeko aukera ikusi zuten arbitro bezala. Gaizka Altuna 14 urterekin hasi zen eta esan digunez, “asteburuetan futboletik gertuago egoteko gogoan nuen eta arbitroaren figurak kuriositatea sortu zidan”. Jorgek, bere aldetik, futbolean egiten zuen eta arbitrajearekin kirola beste alde batetik ikusteko aukera ikusi zuen. “Gainera, 15 urterekin dirutxo bat irabazteko aukera ematen zidan”, diosku. Markelek, ostera, kuadrillan arbitroa zen lagun bat zuen.



“Arbitrajearen inguruan gauza onak besterik ez zizkidan esaten, probatzeko eta abar, eta 4. DBH-n hasi nintzen”, azaldu digunez.

Arbitroa izan nahi duenak pausu errazak eman behar dituela esan digute. “Euskadiko Futbol Federazioaren barruan Arbitroen Batzorde Teknikoa dago, bertan izena eman behar duzu eta ikastaroa egin. Sartzea erraza da”, kontatu digu Gaizkak. “Hasieran, gainera, aholkularitza jasotzen duzu. Adibidez, hasiberriak partidu batzuetan marrazain moduan sartzen dituzte arbitrajearen funtzionamendua ezagutzeko”, gehitzen du Markelek.

Futboleko arituen denak, bestalde, txip aldaketa egin behar izaten du. “Hiru urtez futboleko jokatzeko eta arbitratzeko ibili nintzen, eta futbola laga arte ez da txip aldaketa ematen. Arbitratzera joaten nintzen eta futbolari pentsaera nuen. Gero, poliki-poliki, partiduak ikusterakoan epaileek egiten dituzten gauzetan fikatzen zara gehiago”, diosku Jorgek.

Etengabeko prestakuntza

Futboleko arbitroen lana funtsezkoa da jokoaren behar den bezala garatu ahal izateko. Beraz, futbolariekin antzerka, oso ondo prestatu behar dira kirolak exijitzen dienari erantzuteko. “Futbolak gero eta abiadura gehiago du eta, urtetik urtera, arbitroei gero eta gehiago eskatzen zaigu”, diosku Gaizkak. Horretarako, ia egunero entrenatzen dute asteburuetako partiduak arbitratzeko prest egoteko.

Arauek barneratu eta jokoa gertatzen dena zuzen epaitzeko, bestalde, azterketak izaten dituzte urtean



Jorge Rubio eta Gaizka Altuna J2. RFEF mailan arituko dira datorren denboraldian.

hiru edo lau aldiz. Beraz, ia etengabe egon behar dira ikasten.

Federazioak laguntza eskaintzen die, baina lana euren kabuz egin behar izaten dute. Izan ere, futboleko beste protagonistekin alderatuz, eurek ez dute talde handirik atzean. Hori bai, ez dira bakarrik sentitzen. “Atzean gure jendea dugu (familia, lagunak...). Zelaian bakarrik gaudela, baina hortik kanpo beste arbitroekin harremana dugu, elkarri gomendioak ematen dizkiogu...”, azpimarratzen du Jorgek.

Partiduetara egokitzeko gaitasuna

Arbitro bezala, noski, arauak jarraitu behar dituzte futbol partiduak zuzentzeko orduan, baina bakoitzak bere estiloa du. Dena dela, Markelek dioen bezala, “zelaian gertatzen diren egoeretara egokitzeko gaitasuna eduki behar duzu. Adibidez, ez da gauza bera berdegunea bikain egotea edo euria egin ondoren lokatzez beteta egotea. Jokoa aldatu egiten da eta epailea ere egokitu behar da”.

Jorgeren arabera, “partidu bakoitza mundu bat da, eta parti-



Markel Gutierrezek bederatzit urte inguru daramatza arbitro lanetan.

dua ondo joateko egokitzen jakin behar duzu. Oso egoera ezberdina gerta daitezke, eta ezin dira aurreikusi”. Eta honakoa gehitzen du Gaizkak: “Partidua lehen jardunaldikoa edo azkenekoa izateak ere gauzak aldatzen ditu”.

Euren mailan oraindik ez dute horrelakorik, baina azken urteetan goragoko mailetan bideo-epaile laguntzailea (VAR) jarri dute martxan arbitroei laguntzeko. Hirukoteak begi onez ikusten du VAR-ak eskaintzen duen laguntza, akatsak murriztean laguntzen duelako. Hori bai, arbitratzeko orduan aldaketa handia dagoela diote VAR-arekin edo VAR gabe aritzean. “VAR-ak erabakiak zuzentzeko aukera ematen du. Guk, ostera, ez dugu horrelakorik eta, beraz, garrantzitsua da zelaian adierazten duzuna ondo sinestea. Horregatik, prestakuntza fisikoa oso garrantzitsua da, jokaldiak gertutik jarraitzeko aukera ematen dizulako”, Markelen ustez.

Etorkizuneko erronkak

Aurten hirurak ibili dira 3. RFEF mailan eta, horregatik, “urte polita” izan dela esan digute. Gainera, urtean zehar egindako lan onak saria ekarri die Gaizkari eta Jorgeri eta 2. RFEF-ra igotzea lortu dute. Markelek, bere aldetik 3. RFEF-n jarraituko du.

2023/24 denboraldia, ostera, historia da dagoeneko, eta laster hasi beharko dira hurrengoak prestatzen. “Abuztu erdialdean proba fisikoak egin behar ditugu”, azaldu digutenez. Beraz, eurek ere denboraldiaurrea egin beharko dute.

Hurrengo denboraldia erronkaz beterik dator hirukotearentzat eta gogotsu ekingo diote. Gainera, amesten jarrita, zenbait helburu dituzte. “Gustatzen zaidan zerbait da eta ahalik eta goren heltzea gustatuko litzaidake. Lehen mailara, adibidez”, diosku Gaizkak. Jorgek zera dio: “Ametsa beti izan behar da gora heltzea, baina errealistak izan behar dugu eta oso zaila dela

jakin behar dugu. Nire helburua partiduez gozatzea eta lanarekin pozik geratzea da”. Markelek, azkenik, honakoa diosku: “Espainian 42 arbitro dira profesionalak (20 Lehen Mailan eta 22 Bigarren-goan). Gure helburua beti da igotzea, baina aurten gure mailan Euskadin 35 geunden, hiru joan dira Madrilera mailaz igotzeko probak egitera eta bi eibartarrek lortu dute helburua. Hori marka da, ezin da pentsa urtero horrelakorik gertatuko denik”.

Beste herrikide batzuk euren zat erreferente izan ziren bezala (“Aitor Arrieta, Alex Higuera eta Mikel Alonso, adibidez”, gogoratzen ditu Gaizkak), orain eurak dira eredu. Horrela, hirukoteak neska eta mutil gazteak animatu nahi dituzte futboleko arbitro izateko. “Gero eta neska gehiago dira futboleko arbitroak, baina Eibarren ez dago inor. Beraz, ondo egongo litzateke jendea animatzea”, azpimarratzen dute.

Deporreko Garikoitz Iruretagoiena hirugarren, munduko apnea txapelketan



Maila eman zuen beste behin Garikoitzek.

Belgradon aurreko domekan jokatutako munduko txapelketan, Eibarko Klub Deportiboko apneistak hirugarren postua eskuratu zuen apnea estatikoa modalitatean. Aurretik Euskadiko eta Espainiako txapelak jantzi dituen zizurkildarrak 8:22:23 denbora egin zuen, eta Vladimir Pogrebenkok (8:58:95) eta Aleksandr Maksimov (8:54:45) hobetu zuten bere marka. Bost apneistak bakarrik gainditu zituzten 8 minutuak, tartean bere atzetik sailkatutako Gi Mun Kwak korearrak (8:12:32) eta Eric Marchal frantziarrak (8:03:05).

Eibar Igerixaneko bi ordezkari Udako Gipuzkoako Txapelketako gorenean

Aurreko asteburuan Tolosako Usabal kiroldegian jokatutako Udako Gipuzkoako absolutu eta junior mailetako txapelketetan, Eibar Igerixanek lauko ordezkari izan zituen eta euretako bi podiumaren gorenera iritsi ziren. 2003an jaiotako Asier Gomez izan zen Eibarkoen mutil bakarra, nesken hirukoteak parte hartu zuen bitartean: Nora Guinea (2008), Paula Calvo (2009)

eta Itsaso Castrillo (2020). Calvok estilo erako 200 eta 400 metroko probak bereganatu zituen eta, urrezko bi horietatik aparte, hirugarren izan zen 50 brazan. Castrillok urrezkoa irabazi zuen 800 libreetan, eta zilarrezkoa modalitate bereko 400ekoan. Gomezek, azkenik, laugarren amaitu zuen 200eko bizkarreko proba. Lorpen guzti horiek absolutu mailan eskuratu zituzten.



Udako Gipuzkoako txapelketan Eibar Igerixan ordezkatu zuen laukotea.



Gaston eta Amorrosta euren mailetako hamar onenen artean izan ziren Legution.

JAZek bost ordezkari izan zituen Legution

JAZ Eibar Triatloi Taldeko bostkote batek hartu zuen parte aurreko zapatuan Legution jokatutako triatlloan. Igerian 1.600 metroko distantzia eginez ekin zioten probari, jarraian bizikleta hartu eta 42 kilometro osatu, eta amaitzeko beste 10 kilometro egiteko antxintxikan. Jokin Amorrosta izan zen ordezkari onena, 43. postuan amaituta (2:35:32 denborarekin), bere mailako seigarrena izateko; Aitor Fernandez 91. postuan helmugaratu zen (2:53:55); Iñigo Gaston 102. tokian sailkatu zen (2:59:05), bere mailako bederatzigarrena izateko; Javier Muñoz eta Jon Otxoa 123. eta 145. postuetan helmugaratu ziren, hurrenez hurren (3:10:22 eta 3:30:25eko denborekin).

Arrateko Igoera izeneko proba jokatu da bihar Deporreko mendeurrenaren harira

Txirridularitzak gure herrian duen presentzia bestela ere nabarmena bada, oraingoan ohiko egutegitik kanpoko beste proba bat biziko du: Klub Deportiboko mendeurrenaren barruan biharko prestatu duten afizionatuen mailako lasterketa berezia. Deporrek urteetan antolatutako Arrate Igoera nahi izan dute antolatzaileek errekuferatu, "baina horrelako proba laburretarako tarterik ez dago egun, eta kilometro gehiagokoa egin behar izan dugu". Hori bai, lasterketak gurean hasi eta Arraten izango du amaiera.



Eibar eta bizikleta, urteetako lotura.

Proba Klub Deportiboaren pare-tik abiatuko da 09:30ean eta Arratera 13:00etatik aurrera heltzea aurreikusten da. Proban 23 urte azpiko eta elite mailako txirridulariek hartuko dute parte, eta Lehendakari sarirako baliagarria izango da. Lasterketan parte hartuko duen Deporreko bertako taldearen zuzendariak, Galder Lasuenek, esan digunez "19tik 29 urtera arteko txirridulariak izango dira bertan, eta talde bakoitzak gehienez 12ko taldea aurkeztu ahal izango du. 17 taldek eman dute izena eta tartean izango da Zamora Enamora indartsua, iazko Valenciaga Memoriala bereganatu zuena".

Irteera neutralizatuan Azitaineraino joango dira eta, lehenengo, Oñatirako bidea hartuko dute. Han Zubillaga auzoan buelta eman eta Maltzagara itzuliko dira, ondoren Debarako bidea hartzeko. Mutriku, Galdona, Saturraran,



Mutriku, Deba, Elgoibar eta Maltzagatik berriro Oñatira joko dute, handik berriro bueltatu eta, behin gurera helduta, bariantetik Arratera zuzentzeko, Legarretik igota. Lasterketak 140 kilometro izango ditu guztira.

Proba hori dela-eta, Udaltzaingotik diotenez, "zapatuan erdigunea oinezkoentzat jarriko da goiz-goizetik, 07:00etatik".

SD Eibarko lehen aurpegi berriak hasi dira aurkezten

Martitzen eguerdian aurkeztu zituzten Ipuruan Hypermotion Ligan jokatzeko duen SD Eibarko talde nagusiaren denboraldi berrirako lehenengo fitxaketak. Biak 2026ra arteko kontratua sinatu dute eta, Magunagoitia atezaina Amorebietatik datorren bezala, Guruzeta erdilaria Sestao River taldeetik dator. Jokalari biek lotura estua dute Eibarrekin. Aurkezpen prentsaurrekoan Cesar Palacios SD Eibarreko kirol zuzendariak azpimarratu zuenez, "jokalariak ilusio eta indar handiarekin daude". Gainera, "gaztetasuna, gosea eta hobetzeko gogoia" duten jokalariak direla ere adierazi zuen.



Jon Guruzetak Eibarren dituen aitita-amamen konpainia izan zuen aurkezpenean.

Zazpi partidu jokatuko ditu 2. Mailako Eibarrek Liga hasi aurretik

Atzo itzuli zen entrenamenduetara Hypermotion Ligako SD Eibar, 2024/25 denboraldia prestatzen hasteko asmoarekin. Joseba Etxeberriaren mutilek Atxabalpen ekin zioten denboraldiaurreari, eta gaur eta bihar beste entrenamendu-saio bana izango dute toki berean. Taldeak definitu ditu dagoeneko Liga

hasi aurretik jokatuko dituen partiduak. Hona hemen egutegia:

Denboraldiaurrea.–

Uztailak 20: Real Union - Eibar
Zarauzko Asti / 11:30

Uztailak 24: Eibar - Barakaldo
Arrasateko Atxabalpe / 18:00

Uztailak 27: Racing - Eibar
Sarongo F. Astobiza / 12:00

Abuztuak 1: Athletic - Eibar

Sestaoko Las Llanas / 19:00

Abuztuak 3: Sporting - Eibar

El Berrongo S. Sanchez / 19:00

Abuztuak 9: Eibar - Osasuna

Arrasateko Atxabalpe / 11:30

Abuztuak 9: Amorebieta - Eibar

Zornotzako Urritxe / 19:00

Liga abuztu eta irailean.–

Abuztuak 17: Eibar - Castellon

Ipurua / 17:00

Abuztuak 25

2. jardunaldia: Racing-Eibar

Irailak 1

3. jardunaldia: Eibar - Levante

Irailak 8

4. jardunaldia: Albacete - Eibar

Irailak 15

5. jardunaldia: Eibar - Tenerife

Irailak 22

6. jardunaldia: Almeria - Eibar

Irailak 29

7. jardunaldia: Oviedo - Eibar



F Ligako SD Eibarrek sei partidu jokatuko ditu denboraldiaurrean

SD Eibarko emakumezkoen lehen taldeak sei partidu jokatuko ditu denboraldiaurrean, lagunartekoan eta Euskal Herria Kopakoan artean, 2024-2025 denboraldia prestatzen hasten joateko. Yera Martinen taldea uztailaren 18an bueltatuko da entrenamenduetara eta, nahiz eta oraindik F Liga txapelketaren hasiera ez den argitaratu, ez da espero iraila baino lehen hastea. Denboraldiaurreko egutegi osoa, Athletic Cluben aurka Tafallan hasiko dena, honakoa da:

Abuztuak 3: Athletic - Eibar

Tafallako San Francisco / 19:00

Abuztuak 10: Reala - Eibar

Hernaniko Zubipe / 12:00 (Euskal Herria Kopakoa).

Abuztuak 14: UD Logroño - Eibar

Logroñoako La Rioja / 18:00



Gizonezkoen taldea baino astebete geroago hasiko da lanean emakumezkoena (hilak 18).

Abuztuak 17: A Coruñaako Deportivo Abanca - Eibar

Unquerako El Lance / 17:30

Abuztuak 23: Eibar - FC Nantes

Zarauzko Asti / zehaztu gabe

Abuztuak 30 edo Irailak 1: Euskal

Herria Kopa. Aurreko emaitzaren arabera, 3. edo 4. posturako partidua joka dezake, edo finala. Horako aurkariak hauek izan daitezke: Athletic Club, Deportivo Alaves eta Osasuna.



Zeru lurrak gorritzen. RAYMUÑOZ

Herriaren nortasuna gorde duten soziedadeak

Ohiturak ohitura, eta tradizioak tradizio, eibartarrok urteetan aurkitu ditugu gustoko topaguneak elkarte gastronomiko edo soziedadeetan. Lagun giroan eta sabela beteta, bizimodu aberatsa eskaini digute askotan, presarik gabeko bazkari edo afariari jarraitu dion karta-joko edo solasaldiarekin.



1970 bueltan sortu ziren elkarte gehienak.

Horretaz aparte, ezin dugu ahaztu elkarte gastronomiko horiek sukaldaritza-eskola ere izan direla askorentzat, Karlos Argiñanok berak ...eta kitto!-k orain dela 28 urte kaleratutako “Eibarko Elkarte Gastronomikoak” publikazioaren hitzaurrean zioen bezala, “gure amamengandik jasotako errezetarik goxoenak gorde eta gaurkotuz”.

Argitalpen berria

1996ko argitalpen hura gaurkotzeko asmoz, urtea amaitu aurretik herriko soziedadeak protagonista izango dituen publikazioa aterako dugu. Hori dela-eta, jakina, elkarte horietako kideon kolaborazioa beharko dugu. Gure aldetik, liburu hartan azaltzen ziren izenak jaso ditugu, gerora sorturiko beste batzuekin batera, baina badaiteke izatea guri ihes egin digutenak ere; horrelako kasuetan, eskertuko genuke datu horiek guri jakinaraztea, beti ere ahalik eta produktu osotuena kaleratu ahal izateko.

60 elkarteren bueltan

Alperrak, Amaña, Asola Berri, Aterpe, Baten Bi, Batuak, Behartsuak, Bekuak, Beti Asarre, Beti Galdu, Beti Jai, Bide Alde, Bomba, Botellin, Buztarri, Centro Burgales, Dardai, Dorrepe, Edozer, Erdi Bana, Estre-

lla, Gazte Gogor, Gure Bastarra, Gure Txokoa, Ipurua, Itur Ondo, Itxulanbru, Izar Berri, Izarra, Jai ki, Jatorrak, Jatunak, Kamarroak, Kerizpe, Krabeliñ, La Perla, Legarre Gain, Lore Toki, Ondo Nai, Ospelak, Otarra, Pantalla, Piztu, Rakan, Sasipe, Tariñak, Txabola, Txirikil, Txistu, Umbe, Unzaga, Urkipe, Urkizu Gaiñ, Urko Azpi, Uso Bide, Zatarrak, Zatixa, Zazpi Gazte eta Zorionak. Horiek izan ziren aurreko liburuan kaleratutakoak, guztira 59. Badakigu, horiez gain, Denon Sahatsa, Galdaramiño, Peña Txinbera eta Txirixoa berriagoak direla.

Datu jasotzea

Publikazio berrian jasoko ditugun datuak oso errazak izango dira, elkarte bakoitzaren fitxa modukoa betetzeko asmoz. Honakoak izango dira: izena (nondik datorren), helbidea, sorrera-data, bazkide kopurua, kuota, egun berezia (ospakizun eguna) eta urteroko ekitaldiak (egotekotan). Bestalde, logoa eta talde-argazkia ere jaso beharko genituzke.

Gure arteko komunikazioa errazteko asmoz, 605711422 whatsapp zenbakira idatzi dezakezue, zuen elkartearen izena eta kontakturako telefono bat adieraziz. Aipatutako soziedade horietan gure gutuna jasoko duzue datorren asterako.

AMAIA HERRERO OIARZABAL • Filologoa

“Etorkinei buruz ditugun aurreiritzi asko alde batera utzi behar ditugu euskaldunok”

Amaia Herrero Oiarzabal (Vigo, 1973) filologoak Udako Euskal Unibertsitatearen 52. Udako Ikastaroen baitan egin den Glotodidaktikako VIII. Topaketan hartu du parte. Ingeles Filologia (Deustuko Unibertsitatea) ikasi zuen eta, ondoren, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterra (EHU). Gaur egun, Baskale Kultur Elkartearen dabil lanean eta topaketan euskara eta immigrazioari buruz aritu da.

"Euskara eta immigrazioa. Hizkuntza gutxitu guztien ispilua" du izenburua emango duzun hitzaldiak. Zer azpimarratuko duzu bertan?

Gure gizartean badago diskurtso bat aditzera ematen duena etorkinei ez zaiela euskara interesatzen eta ez dutela euskara ikasi nahi. Guk 60 etorkin baino gehiago elkarrizketatu genituen, eta denek zuten euskara ikasteko interesa; beste kontu bat da euskara ikasteko beharrezko baldintzak ez izatea.

Zein da migratzaileek euskara ikasteko duten zailtasuik handiena?

Arazo nagusia ekonomikoa da, euskara-ikastaroak ez baitira erabat doakoak. Beste arazo handi bat denbora falta da, ezinezkoa da haien lana, familia eta abar eskoletako ordutegiarekin bateragarri egitea. Beste faktore batzuek ere eragiten dute: administrazio-egoera irregularrak, euskal kultura eta euskararen egoera ez ezagutzeak...

Eta zer egin beharko litzateke horri buelta emateko?

Euskara ikasteak erabat doakoa izan beharko luke maila guztietan. Ikaskuntza-eredu malguagoak eta Euskal Herria, bere historia eta euskararen historiari buruzko ikastaroak edo hitzaldiak eskaini beharko lirateke.

Zer da Baskale? Zer egiten duzue?

BASKALE Elkarte formalki 2010. urtean sortu zen alemaniar eta euskaldun batzuen artean. Elkarte soziokulturala da. Baskaleko proiektuak ez dira akade-



Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan egindako topaketan, euskalduntze-alfabetatzea aztertu dute, intersektionalitatearen ikuspegitik. ELKARRIZKETA ETARGAZKIA: UEU.

mikoak, ez dira apalategirako lanak. Pertsonekin lan asko egiten dugu, elkarrizketak egiten ditugu, haien esperientzia interesatzen zaigu. Eta ikasitakoaren bidez, erakusketak, hitzaldiak edo bisita gidatuak garatzen ditugu, interesdunei helarazteko.

Azpimarratzeko zerbait gehiago?

Etorkinei buruz ditugun aurreiritzi asko alde batera utzi behar ditugu euskaldunok. Ahalegin handiagoga egin behar dugu etorkinekin harremanak izateko eta euskalduntze-prozesuan laguntzeko.



65 urtetik gorakoentzat musika ikastaroak urrian

Nagusiei zuzendutako ekimen berria, musika-ikastaro bereziak 65 urtetik gorakoentzat martxan ipiniko duela iragarri du Eibarko Udalak. Matrikula-epa irailaren 1etik 20ra arte egongo da zabalik, Portaleko 4. solairuan. Astean bi txanda egongo dira aukeran: martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara; eta eguenetan, 15:30etik 16:30era. Ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira. Udaletik esan dutenez, “ikastaro hauek aukera emango diete pertsona nagusiei berriz ere musikarako plazera sentitzeko eta ongizate fisiko nahiz emozionala indartzeko”.



Aire zabaleko zinema emanaldiak abuztuan

Udalak lau pelikula emango ditu abuztuan, Untzagan jarriko duten aire zabaleko zineman. Saioak abuztuko eguenetan (15ean izan ezik) 22:00etan hasiko dira, eta doako eskaintza izango da. Lehen pelikula *Boo Kwai eta museoaren lapurreta* izango da, abuztuaren 1ean. Animaziozko pelikula txinatar hori euskaraz emango dute. Proiektatuko dituzten beste filmak *Barbie*, *Robot Dreams* eta *El Vasco* dira.



Arrateko bertso-afarirako sarrerak salgai ...eta kitto!-ren bazkideentzat

Gaurtik aurrera eros ditzakete Arrateko Bertso Afarirako sarrerak ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideek. 38 eurotan erosi ahaliko dituzte, bazkide bakoitzak bina sarrera asko jota, ...eta kitto!-ren bulegoan (Ur-kizu 11, solairuartea), uztailearen 22ra arte (10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era). Uztailearen 24tik aurrera, berriz, 40 eurotan salduko dira sarrerak Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen. Aurten ere puntapuntako lau bertsozari bitatuko dute Arrate gaina: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsozariak jardungo dute Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara. Guztira 90 sarrera jarriko dira salgai.

Irailerako ikastaro eskaintza zabala prestatu du KZguneak

Eibarko KZgunean prest dago irailerako planifikazioen eskaintza, denetarik kurtsoekin: laguntza-ikastaroak, oinarriko formakuntza, aisia eta entretenimendua, produktibitatea... Ikastaro batzuk aurrez-aurrekoak dira, eta beste batzuk Internet bidez egin daitezke. Eibarko KZgunea Portalea kultur etxean dago, 2. solairuan, eta astelehenetik barixakura zabaltzen dute, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako, ikastaroen katalogoa kontsultatu daiteke Interneten (<https://www.kzgunea.eus/eu/ikastaroak>).





AURKITU 9 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5				6	8	9	
				5	2	1	
2	7					5	
4			1	9			
		2			1		
			3	7		8	
6						8	4
	5	7	6				
1	4	9					2

5	2	4	1	6	8	9	3
3	7	8	5	2	1	4	6
2	9	6	3	7	8	5	1
4	1	3	8	9	6	2	7
6	8	5	2	1	4	3	7
3	7	8	5	2	1	4	6
2	9	6	3	7	8	5	1
4	1	3	8	9	6	2	7

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				8		7		
				1	5	8	3	
			2			5	4	
9	4		1					
8	1			7			9	2
					3		1	8
	6	4			1			
7		2	6	5				
	9		3					

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

5	2	4	1	6	8	9	3
3	7	8	5	2	1	4	6
2	9	6	3	7	8	5	1
4	1	3	8	9	6	2	7
6	8	5	2	1	4	3	7
3	7	8	5	2	1	4	6
2	9	6	3	7	8	5	1
4	1	3	8	9	6	2	7

Uztailak 12/18

ZAPATUA 13

TXIRRINDULARITZA

09:30 Arrate Igoera.
T. Etxebarria kaletik.
13:00 Helmuga Arraten.

LAMBRETTA EIBAR XIX. TOPAKETA

10:00/12:00 Harrera parte-hartzaileei. Akreditazioak eta izen-emateak. Untzaga.
12:00 Parte-hartzaile guztien kalejira, Eibarko kaleetatik.
12:30 Getariarantz abiatzea, bidean geldialdia, eta hamarretakoa.
13:30 Ibilaldiarekin jarraitzea, Soraluzearena. Bazkaria, Txurruka jatetxean.
15:00 Bazkaria eta sari-banaketa.
18:30 Eibarrera itzultzea. Ongi Etorri tabernan elkartzea.
20:00 Motorrak aparkatu eta erakusketa. Untzaga plaza. Afari-merienda, Koskor tabernan.

BOLATOKIKO "EZ JAIK"

10:00/12:00 Haurrendako jokoak.
13:00/14:00 Ardo-dastaketa.
15:00/17:00 Herri-bazkaria.
17:00/19:00 Tute eta igel-toka txapelketa.
19:00/20:30 Piskolabisa, doan.
20:30 Eibarko aho-orkestra: Miguel Angel Frey. Otarraren zozketa. Ipuruako bolatokia.



DOMEKA 14

LAMBRETTA EIBAR XIX. TOPAKETA

10:30 Irteera eta ibilbidea, eskualdetik.
14:00 Agurra, hurrengo urtera arte.



MARTITZENA 16

FACTORING

10:00/20:00 Udako Aukeren Azoka. Toribio Etxebarria kalea.
10:30/12:30 Euskaraz Primeran, ...eta kitto! Euskara Elkartearen mahaia. Birjiñapeko zeharbidearen aldamenean.



EGUAZTENA 17

FACTORING

10:00/20:00 Udako Aukeren Azoka. Toribio Etxebarria kalea.
10:30/12:30 Euskaraz Primeran, ...eta kitto! Euskara Elkartearen mahaia. Birjiñapeko zeharbidearen aldamenean.

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko Borondatean Dokumentuari buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten eskutik. Untzaga gize zentroa (Arrate aretoa, lehen solairua).



EGUENA 18

FACTORING

10:00/20:00 Udako Aukeren Azoka. Toribio Etxebarria kalea.
10:30/12:30 Euskaraz Primeran, ...eta kitto! Euskara Elkartearen mahaia. Birjiñapeko zeharbidearen aldamenean.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaeleentzat. Untzaga jubilatuta etxea.



ERAKUSKETAK

Uztailaren 30era arte:

- "NI NAIZ NAIZENA" argazki-erakusketa. (Andretxea).

Uztailaren 31ra arte:

- "4 MASTERS FIAP". Gràcia de la Hoz, Javier Fernandez Ferreras, Luis Alberto Frank eta Frederic Garrido Vilajuanaeren argazkiak. (Depor taberna)
- "RALLY 2024 EKDAT". Fernando Retolazaren argazkiak. (Portalea jatetxea)

Urriaren 20ra arte:

- "MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK" (Armagintzaren Museoa)

Eskualdeko Agenda

DEBA

12an (BARIXAKUA) IKUSKIZUNA
22:00/23:30 Plaza Zaharra "Begiradak", literatura, irudiak eta musika uztartuz

SORALUZE

12tik 15era arte SAN ANDRES JAIK
13an (ZAPATUA) Pilota, zezanak, erromeria eta kantu-afaria
14an (DOMEKA) Bertsolariak, herri-kirolak eta bola-jokoa

ELGOIBAR

12tik 14ra arte URAZANDIKO JAIK
13an (ZAPATUA)
22:00 Kontzertua
Versionarios eta Kitziki

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **13an:** 22:30 (2)
- **14an:** 17:00

“En tierra de santos...”
AKZIOZKOA



2023/Irlanda/106'
Zuzendaria: Robert Lorenz
Aktoreak: Liam Neeson,
Kerry Condon, Jack Gleeson
Thriller/Intriga/70. urteak

2 ARETOA

- **13an:** 17:00 (1), 19:45, 22:00
- **14an:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **15ean:** 19:30

“El bus de la vida”
DRAMA



2024/Espainia/98'
Zuzendaria: Ibon Cormenzana
Aktoreak: Dani Rovira, Susana
Abaitua, Elena Irureta
Gaixotasuna/Musika

2 ARETOA

- **13an:** 17:00, 19:45
- **14an:** 20:00 (1 Aretoa)
- **15ean:** 19:30 (1 Aretoa)

“Del revés 2 (Inside Out 2)”
ANIMAZIOA



2024/AEB/96'
Zuzendaria: Kelsey Mann
Nerabezaroa/Izotz-hockeya

ANTZOKIA

- **13an:** 17:00, 19:45, 22:30 (1)
- **14an:** 17:00, 20:00 (2 Aretoa)
- **15ean:** 19:30

“Gru 4. Mi villano favorito”
ANIMAZIOA



2024/AEB/95'
Zuzendaria: Patrick Delage
Komedia/Familia ihesean



**- TRASTELEKUAK
PARTIKULARRENTZAT
- BILTEGIAK
ENPRESENTZAT**

621 325 477 / www.lekubox.com / info@lekubox.com



**LEKU
BOX**

Gipuzkoa hiribidea, 19
- ERMUA -



FUNEUSKADI
Grupua Antzokia

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EIBAR

TANATORIO EIBAR ORIO
EKOZIMEN

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Eidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdepeña, 14

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao
Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARKEL**, atzo 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Aitana arrebía eta Maialen lehengusiñaren partez.



Zorionak, **NAIA!** Gaur 12 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Jarraitu holan, alai eta zoriontsu!



Zorionak, **MALEN**, eguaztenian 8 urte egin zenduaz-en-eta!!! Musu potolo bat etxeko guztien eta, batez be, Ekhiren partez!!!



Zorionak, **JON!** Eguaztenian 6 urte beteko dozuz-eta! Patxo potolo bat, batez be Uxueren partez!



Zorionak, **KEPA**, gaur 4 urte betetzen dozuz-eta. Besarkada eta patxua Elorrixoko eta Eibarko famelixakuen partez.



Zorionak, **ALIOSHA**. Disfratau zure egunaz. Besarkada haundi bat maite zaittuen zure famelixaren partez.



Zorionak, **NAIARA** eta **EKHI!!!** Bixar danok alkarrekin ospatuko dogulako zuen ezkontza!!! Merezi dozuen zoriona opa deutsuegu!!



Zorionak, **ENEKO** (hillaren 15ian 9 urte) eta **NORA** (hillaren 16xan 7 urte) urtiak beteko dozuez-eta. Patxo haundi-haundi bat etxeko danon partez!

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

leku berri bat

Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

agunero elkarrekin egoteko

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Vielhan (Baqueira). 75m². 2 logela, 2 komun eta egongela-jangela-sukaldea. Igogailua eta garagea. Sauna eta igerilekua. Jolas-guneak (futbolina, billarra eta ping pong-a). Ekain, uztail edo abuztu osoa: 1.500 euro. 688840712.
- Emakume batek pisua hartuko luke alokairuan. 2-3 logelakoa. 664823992.
- Emakume batek pisua hartuko luke errentan. 2/3 logelakoa. 607841549.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko goizez. 642986129.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) etxean zein ospitalean eta etxeko garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 667060292.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 672913892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 631279124.
- Katuak zaintzen ditut uda honetan, berdin dio egunak, asteak... 663520383.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko: etxeak, lokalak, tabernak... 674810717.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632708954.

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Externa. 643708616.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 608401590.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643711687.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa. 613304239.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 607841549.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pasiatzeko goizez. 679912841.

4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna eta arduratsua behar da nagusia zaintzeko, Soraluzen. Esperientzia baloratuko da. Astelehenetik ostiralera, jardunaldi osoa. 635441920.
- Emakume euskalduna eta arduratsua behar da nagusia zaintzeko, Soraluzen. Asteburuetarako, ordutegia adosteko. 635441920.
- Kamarera/o behar da abuztu eta irailerako. 627778980.
- Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da irailetik aurrera umea eskolara eramateko. 699495279.
- Frantsea dakien zerbitzaria behar da Eibarko jatetxe baterako. 606848794 / jatetxeaibar@outlook.es. 69945279.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Kitarra, baxu elektrikoa, konboak, sormen eta edizio musikala (home estudio) eta armonia modernoaren klaseak ematen dira. maria-nohurtadobravo@gmail.com. 652217737. Mariano (Musikene).
- Neska eskaintzen da ingelesezko klase partikularrak emateko. 688728655.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak



abontza
clínica estética

Medikuntza
- Dermatologia estetikoak
- Aurreko gaitzak
- Beltzak

Kirurgia
- Beltzak, belarriak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - Ibaia 943 206 044

ANE YESGA
CLINICA MEDICINA ESTETICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta 2bis B, Entrepilanta A
625 003 251 info@draanesvesga.com
WWW.DRAANESVESGA.COM



Okulistak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria 2, 1º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOAK

838200124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208




BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (125 Kolegiatu zenb.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zenb.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zenb.)



PODOLOGOAK

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tinoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zenb.

Psikologoak

PSIKOLOGIA PSIKOTERAPIA

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO ARRETA PSIKOLOGIKOA

GONZALEZ DE MENDIBIL
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Monragon Lali
GOMEZ DIA ARRASATEZ
Urkizu, 13 - behealdea
Tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



943-206776

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko argentziak
610 532 922 www.thelecer.com

ITURGINTZA

PERU FONTANERO

Iturgintza eta kalefakzio konponentak



telefonoa: 660522521 whatsapp: 605403596

Termo elektrikoaren aldaketa
Mazparen instalazioa

Erradiadoreetako ihesaren konponketa
Komunetako ihesaren konponketa/aldaketa
Etxeko elektrizitate arloa ezagutzen dugu
Destratatzeak / Pintura lanak

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txontea, 30 - 1. eta beheko
Tfnoa: 943 12 13 87 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeez
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HELBIDE BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristeriaacha.com eta faxa: 943 203 903



943-206776